

1

Zer gertatzen ari
da Berdinbidean
Bizkaian?



2



Ezagutzen ... Ibon Uribe

3

Gure udalak martxan...
Barrika



4

Jardunbide egokiak Bizkaian: Euskal emakumeen
hautetsien bilera



1

Zer gertatzen ari
da Berdinbidean
Bizkaian?



“EMAKUMEEK ETA GIZONEK TOKIAN TOKIKO BIZIMODUAN IZAN BEHAR DUTEN BERDINTASUNERAKO EUROPAKO GUTUNA”

“Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan Izan Behar Duten Berdintasunerako Europako Gutuna” Europako Herrien eta Eskualdeen Batzordean (CMRE) ofizialki Innsbruck-en aurkeztu zen, 2006ko maiatzan, hain zuzen ere.

Gutuna Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuzakoa da. Izan ere, sinatzeak, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu.

Konpromiso horien ezarpena bermatzeko asmoz, gobernu sinatzaile bakoitzak berdintasunerako ekintza-plana idatzi behar du, lehentasunak, ekintzak eta baliabideak zeintzuk diren zehazteko.

Dagoeneko, 1600 tokian tokiko erakunde Gutuna sinatu dute. Horietako 32 euskaldunak, 24 bizkaitarrak.

Sinatu duten erakunde hauen artean, Berdinbidean Bizkaian parte hartzen duten batzuk aurki dezakegu: Busturia, Barrika, Gordexola edo Ugao-Miraballes, besteak beste.

Era honetan, eskutitza sinatzera animatu nahi zaituztegu, berdintasun politikak ezartzera eta zeharkakotasuna bermatzeko ibilbidean, pausu bat gehiago emanez.

TOKI BIZITZAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA LORTZEKO GUTUN EUROPARRA

Gutun honek gonbit egiten die Toki Erakundeel, bere eskumenak erabil ditzaten pertsona guztien arteko berdintasun handiagoa lortzeko.

Nik, behean sinatu dudanez (sinatzailearen izena),
..... (Toki Erakundearen izena),
toki erakundearen (Alkatea, Presidentea) kargua dudanak,

adierazten dut ordezkatzen dudanez Toki Erakundeak (e)jan egindako osoko bilkuran erabaki duela Toki Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna lortzeko Gutun Europarrarekin bat egitea eta bertan ezartzen den oro betetzea.

Sinatzailea:

Eguna:

Gutunaren sustatzailea den aldetik, formulario honen kopia bat Europako Udalen eta Eskualdeen Kontseilurara bidaltzea onartzen dut, honako helbidera:



Idazkaritza Nagusia
Europako Udalen eta Eskualdeen Kontseilua
15 rue de Richelieu
F-75001 Paris - Frantzia



Ezagutzen ...

2

Ibon Uribe. Europako Herrien eta Eskualdeen Batzordeko Berdintasun arloko lehendakaria @Uribelbon

Ibon Uribe Elorrieta, Galdakaoko alkatea, 2015etik Europako Herrien eta Eskualdeen Batzordeko (CMRE) Berdintasun arloko lehendakaria da, EUDELen ordezkari bezala.

EUDELen hiru urteko agintaldiari amaiera emateko, 2018ko ekainaren 11an “Berdintasuna, Aniztasuna eta Inklusioa” deitutako konferentzia bat antolatu da. Bilbon burutuko den hitzaldi internazional honetan, Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan Izan Behar Duten Berdintasunerako Europako Gutunaren inguruan landutako ekintzak aurkeztuko dira, besteak beste.



Zein izan da Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan Izan Behar Duten Berdintasunerako Europako Gutunaren ibilbidea?

laz, Bruselaren Gutunaren hamargarren urteurrena ospatu genuen. Nire ustez, hau izan da CMREaren lorpen adierazgarrienetarikoa. Izan ere, hau da Udal mailan berdintasun politikak zeharkakotasunez txertatzeko kontuan izan behar dugun dokumentu erreferente garrantzitsuenetarikoa.

Gaur egun, 1600 Udal baino gehiagok sinatu dute gutuna; horietatik, 32 euskaldunak eta 24 bizkaitarrak.

Euskadin ditugun programak eta berdintasun politikak txertatzeko aurrera eramaten ditugun lan prozesuan oso baloratuak izaten dira Europa mailan (BERDINBIDEAN edo BERDINSAREA sare programak, adibidez).

Zure ustez, nola animatu ahal ditugu BERDINBIDEAN parte hartzen duten herriek Gutuna sinatzera?

Gutunaren izenpetzaile izateak, dimentsio Europarra edo internazionala dauka. Hau da, Gutuna sinatu duenak, herri mailan izandako praktika egokiak, Gutunaren

behatokian sartzeko aukera dauka. Orain dela lau urte, CMREak martxan ipinitako behatoki honen helburu nagusia, maila eta tamaina guztietako herriek jardunbide egokiak trukatzea da. Horrez gain, etorkizunera begira, Europar finantziarioa lortzeko eragile bat izan daiteke.

Hala ere, kontuan izan behar dugu Gutunak sinatzeak, berez, balio sinboliko bat daukala, eta honek, indar gehiago eman diezaioke txertatzen ari diren berdintasun politikei. Soilik Gutuna irakurtzeak, politika berriak txertatzeko ideiak sor ditzake.



Europa mailan lantzen den ekimen interesgarriren bat...

Europako iparraldeko herriek berdintasun politikak txertatzeko baliabide askoz gehiago dituztela argi dago. Hori dela eta, haien kultura berdinzaleagoa dela esan daiteke, berdintasun arloetan beste maila altuago batean egoteaz gain.

Hala ere, berdintasuna zeharkakotasunez txertatzeko politika zehatzei buruz hitz egiten badugu, egia esanda, ez dago diferentzia nabarmentsurik Euskadin lantzen ditugunekin konparatzen baditugu.

Gaur egun, Europako Iparraldeko herriek genero ikuspegiko aurrekontuetan eta genero inpaktua kontuan hartzen duten politiketan lan egiten dute, gure herrialdeetan bezala.

Zeintzuk dira, zure ustez, Europako herrialdeek dituzten erronka nagusiak berdintasun kontuetan?

Asko dira. Hala ere, nire ustez, “palanka faktoreak” izan ahal diren mekanismoetan indarra eta esfortzu handiena ipini behar dugu. Hauek baitira, behin piztuta, beste aldaketa batzuk sortarazi ahal dituztenak: denboraren erabilerak, familia, lana eta bizitza pertsonalaren kontziliazioa, erabakiak hartzen diren lannostuetan emakumeen eta gizonen ordezkartza paritarioa bermatzea.

Hala ere, aldi berean, araudiekin eta kuotak ezartzen dituzten legeekin aurrera egiten jarraitu behar dugu, gizartea orokorrean eraldatzeko mekanismo eraginkorrena delako.



3

BARRIKAKO UDALA

Gure udalak martxan...

2007an Barrikako Udalak “Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan Izan Behar Duten Berdintasunerako Europako Gutuna” sinatu zuen.

Momentu horretan, Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako II Plana onartzeko prest zegoen, eta beraz, berdintasun politikak zeharkakotasunez udal arlo guztietan txertatzeko momentu aproposa izan zitekeen.

2015ean, Barrikako Udalak berdintasun adierazleak garatzeko proiektu batean parte hartu zuen Europako beste Udal askorekin (Sestaokoarekin, besteak beste).

Era honetan, urte berean proiektu hau amaitutzat eman zuten Bruselaseko Udaletxean egindako jardunaldi batekin.

2015 eta 2016an zehar, Uribe Kostako beste herri batzuk (Lemoiz, Urduliz eta Plentzia) “Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan Izan Behar Duten Berdintasunerako Europako Gutuna” sinatu zuten.



Jardunbide egokiak Bizkaian



4

EUSKAL EMAKUME HAUTETSIEN BILERA

Gernikako Batzarretxeak euskal emakume hautetsien bilerea jaso zuen martxoaren 1an.

Bertan, EUDELen, Euskal Udalerrien Elkarteak, martxoaren 8a zela eta aho batez onetsitako Adierazpen Instituzionala irakurri zen.

Ekitaldiaren helburu nagusia, euskal politikan emakumeen indarra eta protagonismoa ikusgai egitea izan da.

Horrela, gizonen eta emakumeen arteko bardintasunaren aldeko errebindikazio bilakatu den ekitaldi honetan, Bizkaiko Batzarretako jarlekuek emakume zinegotziek, alkateek, batzarkideek eta legebiltzarkideek hartu dute, eta baita Euskadiko alderdi politikoetako goi mailako emakume agintariek ere.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak gidatu duen ekitaldiak, azkenengo udal, foru eta autonomia erkidego hauteskundeetan herritarrek aukeratu duten emakumeen ordezkari zabalaren izan du.

Era sinboliko honetan, jardunaldian parte hartu duten gizonen gonbidatuen eserlekuetatik begiratu dute Bizkaiko Batzar Nagusiek, Eudelen eta Emakunderen lankidetzarekin antolatutako hitzaldia.

Jardunaldi honetan, Bizkaiko sei alkate eta zinegotzi, martxoak 8 zela eta Eudelek egindako Adierazpen Instituzionala irakurri zuten. Adierazpenak Europako Txostenaren aholkuak eta Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Bardintasunerako Europako



gutunetik sortutako konpromisoak bereganatzeaz ezezik, Emakumeen eta Gizonen arteko Bardintasunerako 4/2005 Legean ezartzen diren betebeharrak ere onartzen ditu.

Horrez gain, toki eremutik zortzi aholku bultzatzeko konpromisoa hartzen ditu. Aholku horren artean hurrengo hauek aurki ditzakegu: erabakitze organo garrantzitsuenetan ordezkaritza orekatua bermatzea, hautatutako emakume ordezkariek eskumen banaketa edo funtzio esleipen estereotipatuen edo bestelako diskriminazio edo jazarpen moduen eraginpean izatea eragozteko zenbait mekanismo ezartzea eta emakumeen ahalduntzea ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak lantzea.